

**KONTSUMOA ZUZENEAN SUSTATZEKO BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK IZENEKO
PROGRAMARI ATXIKITZEKO DOKUMENTAZIOA.**

Establezimenduak eta enpresak Bilbao - Bizkaian kontsumoa zuzenean sustatzeko programari (BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK) atxiki ahal izango zaizkio inprimaki elektronikoa datu guztiak jarriz (www.bonoturismobilbaobizkaia.eus), eta honako hau erantsiz:

- Deialdi honetan aurreikusitako jarduerari lotutako oinarrien 9. puntuaren ezarritako "Atxikitako erakundeak" atalen batean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu korrantea bere izenean duela egiaztatzen duen agiria.
- Establezimenduaren irudia

Establezimenduak edo erakundeak, atxikitze eskaera egitean, **konpromiso hauek bere gain hartzen ditu:**

- Ezagutzen eta onartzen ditu Bilbao – Bizkaian BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK kontsumoa zuzenean sustatzeko programa kudeatzeko zehaztutako baldintzak.
- Zerga Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunero ditu.
- Programari atxikiko zaio eta bertan zehaztutako konpromisoak beteko ditu.
- Programari atxikitzeak programan parte hartzea dakar, salbu eta programa amaitu aurreko edozein unetan idatziz adierazten badu programatik baja eman nahi duela.
- Konpromisoa hartzen du kontsumitzaileei programak zer ezaugarri dituen jakinarazteko.
- Konpromisoa hartzen du establezimenduko ageriko leku batean programa identifikatzeko materiala erakusteko.
- Kontsumitzaileei ez zaie inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta Bilbao Bizkaia Turismo Bonuaren balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada ere.